

BEGASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria
10. Zka. Gasteiz, 1993 Uztaila



Antzerkiaren hilabetea

Tania & Mauro

betaurreko berriak
MULTIOPTICASen azkena zure
begiak modaz jazteko.
Beren diseinu erakargarri eta
kalitatezkoak.
Eta prezioa, harrigarria:
2.550 pta.

Eta beti MENDIA OPTICAren
garantiaekin.
Zatoz eta zerorrek froga ezazu.

betaurrekoak
Tania & Mauro

**ALAITU
EZAZU
BEGIRADA
2.550 pta.**



MENDIA OPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Beti Zuri Begira

Andre Maria Plaza - Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



Bertso Afaria

Jon Lopategi
Jon Maia

**urriak
22
ostirala**


«La Riojana» jatetxean
(Kutxi, 33)


GEUre
GASTEIZ
EUSKALDUNA
egunak

Plaza mugatuak
2.500 ptza

Antolatzailea:
GEU-GASTEIZ EUSKALDUNA

Laguntzailea:
GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

 23 27 02 (Xabi)

 28 56 21 (Xabier)

Izèna eman Urriaren 19a baino lehen

GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

**93-94 ikasturtearen aurkezpen
bilera eta izena ematea**

Bertso saioa:

Arabako bertsolariak
eta...

...sorpresa bat!

Interesatuok etorri!

**Urriak
28
osteguna**

Arratsaldeko 8etan

Txusta tabernan

NON - ZER

4. Bertsoak
5. Argazkia albiste
6. Kalea mintzo
8. Bazenekien...?
9. Juanjo Mena.
Elkarrizketa
11. Antzerki Jaialdia
18. Gazte musika
19. Haurrak
21. Kirolak
24. Kultur agenda
28. Denborapasak
29. Sukalde Txokotik
30. Komikia

Etengabeko krisiak jota

Zerk mantentzen du larogei urtetik gorako aktorea handi bat, Rafaela Aparicio jar dezagun kasu, antzoki taulatu gainean gauero?

Baliteke ikuslegoaren txaloek sortutako adikzio baten biktima izatea edo eta antzerkiari darion magiak garai batean piztutako ilusioari lotuta bizitzea... Halere, arrazoi pragmatikoago baten beharrea gaude aktorea zahartxoaren sena ulertzeko, E. Haro Tecglenek antzerkian ematen den aparteko fenomeno hau argi eta garbi adierazten zuen aspalditxo. Kulturaren benetako langileak diren hauei bizi oso baten lanaren ordainak ez dizkiete sikiera bi egun segidarako garbantzukak ziurtatu. Gustatu ala ez, kultur instituzioen politika antzuek miseria batean mantendu dituzte antzerkia eta antzerki gizon

emakumeak, gogora dezagun bestela duela hilabete gutxi hildako Lola Gaos, franskismoaren garaiko pentsio lotsagarri batekin bizi edo behar zuena azken arnasa eman arte.

Zoritxarreko patuaren kontua balitz bezala antzerkia krisisari lotuta egon da beti, banaezinezko binomio bilakatu da, administrazioak zentzu honetan egiten dituen ahaleginei esker. Kultur Konseilaritzakoek urtez urte egiten duten antzerkirako aurrekontuen murrizketak "gauzak bere tokian zuzen jartzeko" balio diete, (Eusebio Larrañaga dixit). Nik esango nuke gauzak luze iraun dutela bere tokian, aldatzeko garaia ere aspaldi heldu zela baina, aipatutako gogoeta burutsuak direla eta ezin oso baikorrak izan eta zahartzaroan babarrun platerkada baterako baldin baduzue, kontent!

Bertha Gaztelumendi



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa
GASTEIZ

GEU elkartearen
babesarekin
5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua
VI-582/92

Zuzendaria: Joseba Gorostiza **Erredakzio-batzordea:** Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Txema Millan, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Inaxio Lopez de Arana, Ismael Diaz de Mendibil, Olatz Irizar **Publizitatea:** Martin Rezola **Maketazioa:** Blanka Agiriano, Alex Badillo **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzalu, Josu Txabarri **Kolaboratzaileak:** Agurne Aizpitarte, Asier Garro, Txipi Ormaetxea

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzunkizunik




SERAPIO



Oporrak eta gero

I
Oporrak pasa ta sartzen gara irailaren gurutzean poltsikoa huts ta animoak hain egoera latzean depresioa sartzen da berriz monotonian sartzean nahiz ta kolore beltzaran hori luzitzen den gorputzean itxura ona kanpotik baina beste guztia hutsean.

II
Buruak makur haurrak klasera ta langileak lanera baina ez pentsa iraila denik guztientzat gauza bera aprobetxatuz jende gehienak duen moral jeitsiera politikoak indar gehiagoz datozku engainatzera alferrak ez du alde haundirik abuztutik irailera



Postariak ekarriak

Hizkuntzarik gabeko antzerkia

Gasteizko Naziorteko Antzerki Jaialdiak teloa altxatu du. Hilabete hauen zehar ia-ia hogeitahamasei emanaldi eskeiniko dira Principal Antzokian. Egitarau zabal honetan zenbait herrien lanak entzun-ikusgai izango ditugu. Antzelanen hizkuntzak era askotakoak izango badira ere, hutsune nabarmena izango dugu, euskara, alegia.

Antzerki Jaialdi honetarako Udaletxeak marka guztiak hautsi ditu. Zergatik? Joan gaitezen banan banan aztertzen euskararen bazterketa nabarmen hori. Egitarauari dagokionez, esan beharra dago helduentzako ez dagoela inolako antzezlanarik, umeentzako bat bakarra emango delarik.

Udalak argitaraturiko egitarau-liburuxkan euskaraz idatziriko testurik ez

dago, batzuetan sarrera moduko bat agertzen da, besterik ez. Horrez gain, Udaletxeak kaleratutako Gazeta nola Kultur Gasteiz-Vitoria Cultural izeneko aldizkarietan ez da euskara inondik inora agertzen.

Horiek horrela, nik lana egin behar dugula pentsatzen dut. Bai, lana diot, eguneroko lana, hain zuzen ere. Gure hirian instituzioek ez dutela ezertxo ere egingo euskararen alde abiapuntutzat hartu egin behar dugu. Beraz, gelditzen zaigun bide bakarra lanarena da. Euskaldunok esparru guztietan egin behar dugu lan, batez ere, instituzioetan ahaleginak egin behar ditugu proiektuak, agiriak, dokumentazio eta abarreko gauzak aurkeztuz. Honetan ekinaren ekinaz errekonozimendua etorriko zaigu, euskarak arrazoia duelako.



HEMEROTEKA

- «Araban, hein handi batena arrazoi demografikoengatik galdu dira haur-jokoak»
Juanjo Galdos
(«Haur-jokoak Baskonian» liburuaren kolaboratzailea)
- «Ondotxo dakigu sufritzen. Ohituta gaude»
Luis Izaga
(Alaves taldeko jarraitzailea)
- «Jose Lejarreta kalea, izkutuan, hiri-zirkunbalazio bihurtu dute»
Luis Mtz de Zuazo
(Auzo-elkartearen eleduna)
- «Alde zaharrak ez du bertan bizitzeko baldintzarik»
Miquel Apraiz
(Arabako arkitektoen lehendakaria)
- «Zenbaitek ez dute nahi gazte jendeak euren butaka kentzea»
Juanma Bajo
(Zinegilea)
- «Euskara plazatzeko irudimena erabili behar da»
Xabier Galarraga
(GEU elkarteko partaidea)
- «Artesania ikastaroetan ezta dastatu bai, baina gero goilara bertan utzi behar»
Iñaki Ruiz
(Artesaua)

AMAIUR


Peru
kalea, 8
Tfnoa:
22 60 50

...euskara  ikastera.

AIXKIRIA

J.Mardones
kalea, 8
Tfnoa:
26 35 40

Juan de Ayala enparantza, joan den udan bukatu zuten. Horrez geroztik, iritziak era askotakoak izan dira. Auzokideen esanetan, denetarik entzun izan da, batzuentzat polita, ederra eta modernoa; besteentzat itsusia, desegokia eta beltz-beltza. Zuretzako nolakoa da, argazkia ikusirik?



ELKAR

FAGOR



**SUKALDEKO
HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ



ALBENZ
MOBILIARIO

Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ

Zer deritzozue...

...Juan de Ayala enparantzari?

Garai batean asfaltatu gabeko guneak nonahi aurkitzen genituen. Gaurregun, idaia berrizaleak, modernoak dira nagusi. Estetika eta formak praktikotasunarekin uztartu egiten dira. Juan de Ayala enparantza dugu filosofia honen adibidea. Espero bezala honek iritzi kontrajarriak sortu ditu bere inguruan. Hona hemen adibide batzuk

Zer deritzozue Juan de Ayala enparantzako aparkalekuari? ...eta enparantzari berari?



Edurne Ramon (Irakaslea)

1.-Ondo dagoela uste dut. Ez dakit aparkatzeko merkea ala garestia izango den, baina lekua ondo aprobetxatu dute behinik behin.

2.-Ez zait asko gustatzen, hotza iruditzen zait. Aurreko egunean gainetik hartutako argazki bat ikusi eta are okerragoa iruditu zitzaidan. Agian ohitu egingo gara eta ez zaigu hain arraroa irudituko. Egia esan, Haziendako etxe horri ondo datorkio, hain modernoa da eta.



Miguel Angel Garrido. (Langabetua)

1.-Aparkalekuaren ideia ondo dago. Aparkalekuak behar ditugu eta espazio berbera bi erabilpenarako egokitu dute.

2.-Nahiko ondo dagoela uste dut. Daukan diseinu futurista interesgarria da. Gasteizko estilo klasikoarekin konparatuz harridura sortzen du. Kontraste honek aberastu egiten du hiria. Inguruko kristalak agian soberan daude, zuhaixka batzurekin ere ken daitekkelako zarata; itzalik ez dauka eguzki egunak maiz ditugunik ere ezin esan, ordea.



Aurora Bule (Etxekoandrea)

1.-Aparkalekua ondo dago. Hainbeste esparru jarri dituzte oinezkoentzako, aparkatzeko arazo ugari sortu direla

2.-Gehiegi ez zait gustatzen, triste samarra iruditzen zait; badakizu, gauza moderno hauek ez ditut ulertzen. Dena dela, azkenean ikusiaren poderioz ohitu egiten gara eta ez da hain arrotz egiten.

azkarprint

lehen **fas**

Cercas Bajas, 4

Tfnoa:
27 92 51

Fax:
25 42 10

Inprenta zure zerbitzura

Zerbitzu bereziak:


- Eskutxartelak
- Fakturak
- Eranskailuak
- Gonbite txartelak
- Aldizkariak
- Txartelak
- Paper birtziklatua eta ekologikoa
- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- Kamisetetan estanpaketak



Ivana Saenz
(Ikaslea)

1.-Ondo dago. Trafikoa aldrebestu samarra dago erdialdean eta zerbait egi beharra zegoen.

2.-Modernoegia da. Ez dator bat inguruko etxeekin, beno, haziendakoarekin bai. hain desegokia ere ez da. Lehen aipatu dudan inguruarekiko lotura falta da okerrena.



Ivan Gonzalez (Langabetua)

1.-Ondo dago. Gasteizen aparkatzeko leku gutxi daukagu. Behar da horrelakorik.

2.-Itsusi samarra da: zutabe eta iturri horiek ez zaizkit batere gustatzen? eserlekuak edonala jarriak, ez dauka zuhaitzik; lorategiak ere itsusi apartak dira. Diru mordoak gastatu dute alfer-alferrik.



Juan Antonio Baños
(Delinatzailea)

1.- Ondo dago. Arlo honetan oso motz gabiltza. Jendea oraindik ez da ohitu aparkalekuak ordaintzen, baina ez dugu beste erremediorik izango.

2.-Aurreko egunean ibili nintzen barrukaldetik paseatzen eta atsegina iruditu zitzaidan; urak sortzen duen soinua atsegina da; espazio aldetik badago nahikoa; kristalek konpoaldeko kotxe zarata gutxitu egiten dute. Barruan zaudenean zentzu gehiago dauka guztiak. Esate baterako, lorategia espaloiatik ez da ikusten, barnealdetik ordea bai. Orokorrean ondo dagoela esango nuke.



Nora Karrera.
(Ikaslea)

1.-Aparkatzeko leku beharra dago, beraz, ondo dago. Dena den, ez dakit ez ote diren garestiegiak izango jendearentzat.

2.-Ez zait gehiegi gustatzen, oso iluna da, kolore beltz horrekin... Haziendako edifizioarekin ondo dator, baina besteekin ez. Arteaz ez daukat ideia haundirik, hori ere esan behar da.



Marujo Colomo
(Mendiko langilea)

1.-Aparkalekuena ez dago gaizki, baina ez du arazoa konponduko. Gainera, dirua daukanak aparkatuko du bertan, beti bezala. Irtenbidea: kotxea etxean uztea.

2.-Ez zait gehiegi gustatzen: oso iluna da, oso zozoa. Ez diot zentzurik ikusten. Ez dut arkitekturaz gehiegi ulertzen baina zutabetzar horiek, lehiak estaliz, ez dira batere egokiak.

GARNICA 

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73

Bazenekien...?



... Gastizen institutu mailako irakaskuntzaz dugun lehen berria 1.493.an agertzen zaigula «Nueva» kaleko sinagoga Pedro Diaz de Uriondori utzi zitzaionean Humanistika irakas zezan?

...1.848an 100 bat ikasle zegoela matrikulatuta bost urte lehenago inauguratutako institutoan?

... Kultur loraldi gasteiztarra ahalbidedutako zuen Institutu Arabar hartan 300 ikasle baino gehiago matrikulatu zirela 1.863-64 ikasturtean?

... Gerra karlista zela medio, Oñatiko Unibertsitatea Gasteizen izan zela 1.834etik 1.843ra bitartean?

... 1.848an bereiztu zituztela lehenbiziko aldiz «lehen letretako» 360 ikasle gasteiztarrek sexuaren araura?

... Horretarako Udalak urte bereko martxoaren zortzian dohako 3 eskola zabaldu zituela, mutikoentzat bi eta neskatilentzat hirugarrena?

... Horrezaz gain, 12 eskola pribatu zeudela Gasteizen, dohaneko eskoletan sartzeko gazteegiak ziren 500 bat ikasle biltzen zituztenak?

«Lehen letretako» irakaslegoa prestatzeko Eskola Normla 1.847ko otsailaren lehenean eratu zela, eta handik urtebetera 24 irakaslegai zeudela bertan ikasten?

... Urte horietan gure hiriak 10.266 biztanle zituela?



MARKO-JARTZEAK • POSTER ETA LAMINAK
Santiago kalea, 39
☎ 26 09 82



izozkiak

Juanjo Mena

musikarako bizi den gizona



Juanjo Menak musikak bere bizitzaren zatirik handiena hartzen duela aitortzen du. Hala ere, gustatzen zaion lanean aritzea izugarrizko zortea dela uste du. Duela gutxi Bilboko Orkestra Sinfonikoa zuzentzeko aukera izan du 28 urte dituen gasteiztar honek eta berarekin hitz egin dugu hasi berria duen karreraren nondik norakoa ezagutzeko.


Oso gaztetan hasi omen zinen musikaren munduan

Antxon Lete Samaniego Abesbatzako zuzendariak entzumen froga bat egin zigun gelako haur guztiei OHOk 1go mailan geundenean. Neri ondo erantzuten nuela esan zidan eta korurako hartu ninduen. Horrekin batera solfeo ikasten hasi nintzen eta apurka nere bizitzaren zatirik handiena hartu zuen musikak. Oso pozik joaten nintzen musika eskolara eta nahiko bihurria nintzenez arazoak izaten nituen urtero. Samaniego eskolaniatik Samaniego Abesbatzara pasatu nintzen eta, gero "Amets" folk taldean klarineta jotzen hasi nintzen.

Maila batetara iritsita beharrezkoa al da atzerrira joatea ikasten jarraitzeko?

Ni asko mugitu naiz baina egia esan, gehiena Gasteiz eta Madrilén ikasi dut. Kurtsoan zehar Gasteizen egon eta gero udan Belgika edo Alemaniara joatzen saiatzen nintzen urtero ikastaroren bat egiteko.

Antzerki Jaialdia



IREKI TELOIA!

GEU GASTEIZ

neurea...

...zeurea...

...denona!



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

URRIAK 12-13, ASTEARTEA/ASTEAZKENA

Pasionaria !No pasaran!



Utopiarantz

Antzerkiz inguraturik daramadan bizitza honetan, antzerkiari buruz idaz dezadan eskatu didate.

Antzerkiak..., bizitza bezain konplexua, hain zabala, hain hutsala, hain hauskorra eta hain apasionantea! Idaztea ez da nerea, are gutxiago antzerkiak, huraxe da nere janaria eta nere terapia, ezin objetiboa izan! antzerkiaren menpekoea naiz, antzerkia da ene bizitza, ene mina eta ene poza.

Kristona da, esate baterako, gira batera etortzea eta Jaialdirako sarrera salmenta nola doan jakitea, Principal Antzokia martxan dagoen bitartean, hura poza!. Susmoa dut zerbait astintzen ari dela mundu txiki honetan, batzutan trauma handien truk. Holakoetan etsi edo aurrera egin beste aukerarik ez dago. Horretan ari gara eta badirudi ikuslea ere astinaldi honen partaide dela, hau da, hunkitu egiten dugula. Eskenategian, eta kanpoaldean, ikuslea astindu, irauli, interesatu behar dugu: hori lortzen dugun heinean huraxe izango da egiatzko antzerki bizia.

Barkaidazue, baina utopia berreskuratzeko irrikitan nago.

Ana Lucia Billate

Gasteiz Antzerkia

Testua:

Ignacio Amestoi

Zuzendaria:

Salvador Távora

Aktoreak:

Ana Lucia Billate
Pedro Luke
Izskun Asua
Maiken Beitia
Javier Saez dela Fuente
Patxi Fernandez
Xabier Urresti
Patxi Laborda
Asier Elozegi
Jose Vcente Ramos
Juan Jose Macho

URRIAK 15-16, OSTIRALA/LARUNBATA

«Chueik au terminus»

Gastelaniaz eta Frantsesaz

«Cosmos Kolej» Antzerki taldea (Frantzia)

Zuzendaria:

Wladylaw Znorko

Aktoreak:

Nuria Badia
Olga Colomer
Jean Pierre Hollebecq
Xevi Captevila
Richard Martin
Cacu Prat
Climent Sensada
Irina Vavilova
Philppe Vindenot
Patrick Zimmermann



URRIAK 20, ASTEAZKENA

«El amor brujo»



«Carmen Cortes» Dantza taldea

Musika:

Manuel de Falla

Koreografia:

Carmen Cortés

Dantzariak:

Carmen Cortés
Antonio Canales
Joaquin Grilo
Lola Greco
Eva Leiva
Marco Berriel
Jose Greco

URRIAK 21, OSTEGUNA

«La Huella»

Arlekin produkzioak

Testua:

Anthony Saffer

Aktoreak:

Txema Blasco

Jose Ruiz de Azua

Txaro Mtz Urizar

Zuzendaria:

Celes Duarte



Joko maltzurra

«La Huella» izeneko antzezlanak hasiera batean ohizko komedia irudi dezake, nahaste berraste gisako komedia ingelesa horietarikoa, baina obra aurrera doan heinean joko maltzur eta krudelean sartzen da. Bertan, umilazioa izaten da biderik laburrena gizon baten bihotzeraino ailegatzeko. Hirukote baten amodiozko gorabeherak itxakitzat harturik, egileak kolokan jartzen du ingeles aristokrazia. alde batetik, moral bikoitza agertzen zaigu, bestaldetik, gora jo nahi duen gizonarena, bere sustraiei uko egiten dien gizona, hau da, amorante

ona dirutzaren truk. Honako hirukia osatuz: emakumea. Agertu ez baina beti present dagoen fantasma, behar izanez gero, aitzakia krimena burutzeko. Honek ematen digu aditzera testuaren egilea. Nobela beltzaren pintzeladak erabiliz.

Horiek horrela, pertsonaia horien bizitzan sartzea bidaia miresgarria izango zela pentsatu izan dut betidanik. Aukera hori goi mailako bi aktoreren eskutik etorri zitzaidan, Txema Blasco eta Jose Ruiz de Azua. Haez gain talde oso bat gurekin abentura miresgarri honen nabegatzeko prest.

Bizitzaren erritmo dardarikorra abiapuntutat hartu eta nolabait teloia irekitzen den momentu bertik dena gezurra dela kontutan izanik, mundu zoro batean sartzen gara. Jokoa azkenengo punturaino sublimatzen duten bi izakiren munduan, alegia. Kartoizko bi bizitza, euren inguruan bueltaka, trikimailu eta gezurren laberintoan galdurik sortu ditugu.

Ez izan dudarik! Euren joko maltzurtean ez erortzea izan da zailena. Euren oso maltzurak dira eta □

HADE

EUSKALTEGIA

Elvira Zulueta, 4 (Prado parkearen ondoan) • Tfnoa: 23 09 44 **GASTEIZ**

“UPELA” MOTRI

SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA

Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)

URRIAK 22-23, OSTIRALA/LARUNBATA

«Amor de don Perlimplin con Belisa en su Jardin»



Giro tropikala oinarriztat harturik, antzerkilaranek «Fartsa»ren generoa jorratzen du. Istoriak neska gazte eta aguren baten ezkontzan gertatzen diren gora beherak kontatzen dizkigu.

Teatro do ornitorrinco (Brasil)

Testua:

Federico Garcia Lorca

Aktoreak:

Luciano Chiroli
Rosana Seligmann
Maria Alice Vergueiro
marco Lima
Regina Tranca

Zuzendaria:

Maria Alice Vergueiro



LARRUKI
Larruaren
Artisautza

KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK

Kutxillera, 26
Tfnoa: 28 38 86

01001-GASTEIZ

Cerveceria Alemana

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

URRIAK 26-27, ASTEARTEA/ASTEAZKENA

«Historietas»

Dagoll Dagom
(Catalunya)

Zuzendaritza taldea:

Joan Lluís Bozzo
Anna Rosa Cisquella
Miquel Periel

Musika eta antzerkia
bat eginik.



URRIAK 29, OSTIRALA

«El caso Woyzeck»



Noma Teatre

Aktoreak:

Pep Ricart
Empar Canet
Cristina Garcia
Paco Zarzoso
joan Bertran
Josep M. Albert

Zuzendaria:

Carles Alfaro

Musika:

Joan Cerveró

MUGA

MENDIA, ESKALADA ETA BIDAIETARAKO MATERIALEA.
LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA.

Plaza Nueva, 3
Tfnoa: 14 63 25 • 23 05 57
GASTEIZ

Noresta

Paulino Caballero, 41
Tfnoa: 15 14 26
IRUÑEA



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Haur eta gazteentzako saioak

URRIAK 10

«Flit Flit»

Komedia musikala

Roseland Musical

Gidoia: David Cirici

Zuzendaria:

Marta Almirall

Aktore-dantzariak:

Marta Almirall

Elisabet Ferrer

Lidia Fosalba

Carolina Garcia

Montse Colomé

Jose Oriol



URRIAK 17

«Geppetto i Pinotxo»

Abenturak

Dacsa Teatre

Gidoia:

Gianni Franceschini

Zuzendaria:

Joan Serrano

Aktorea:

Pau Esteve

Musika:

Carlo Ceriani



URRIAK 24

«Robinson y Crusoe»

Bi naufrago irla batean

Acción Educativa

Gidoia:

Nino d'introna

Giacomo Ravicchio

Aktoreak:

Julián Rodríguez

Jorge Amich

Musika:

Giacomo Ravicchio



URRIAK 31

«Sueños y palabritas»

Tetergrupeen el Grillo

Zuzendaria:

Fernando Aragón

Aktorea:

Jorge Capellán

Silvia Vivó

Musika:

Rolando Pomo



GILTZA ARBA
ZERRAILDEGIA

LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ
zerrailak, giltzak, atekak kotxeak...

Tfnoa: 945-26 57 29

Jose Mardones, 7
01004 GASTEIZ



MOBILIARIO kide

apaindura

Cercas Bajas, 27 • Tfnoa: 14 41 95 • 01008 - GASTEIZ-

LIBURUAK



50 cosas que los niños pueden hacer para salvar la tierra.

EMECÉ

Vital Kutxa Fundazioa

155 orrialde

Haurrei zuzenduriko liburua. Gaztetxo horiengan ingurugiroarekiko kezka sortzea du helburu, eta egia esan, bete egiten du.



Esaera zuhur eta zahar

IKA


Ardatz Kultur Elkarte

143 orrialde

Parte hartzaileak:

Jon Zabala, Asis Iriondo
eta David Aldama

EGA azterketa prestatzen ari zareten guztiontzat lagungarria. Bertan esaera zaharra eta esamoldeak agertu eta landu egiten dira.



Eduardo Dato

Arabarrak bilduma

Foru Aldundua • Kultura Saila

151 orrialde

Virgilio Martin Nogales

Eduardo Datoari buruzko biografia dugu honako liburu hau. Bertan gasteiztar honen gorabeherak ematen dira ezagutzera.

HONTZA

Gazte-musika

Bizkar Hezurra: Informazio pozoindua

90. hamarkada musikalean sustrai amankomuna bilatzen saiatzen denak lan gaitza dauka. Indibidualismoaren egunetan murgildurik, artea, honen islada besterik ez da. Eta noski, musika ez dugu apartekoa! Bide luzea ibili du gaurregun herri musikak, eta hau honela, asko izan dira ibilaldi honetan aurkitu ahal izan ditugun geltokiak. Rock'n Rolla joan-etorri honen oinarria izan da. Hemendik aurrera musika mota zerrenda luze bat batu da Ameriketako erritmo beltzarekin, Rocka, alegia.

Dena dela, mundu osoan zehar, talde ugari izan dira eredu musikal hauek heldu dietenak, gutxi berriz, denon eraginak lotzen saiatu direnak. Euskal Herrian, ardura izugariari esker, gero eta handiagoa dugu musika arlo ezberdinei oztupoak jartzen ez dizkien talde kopurua. Gasteizen, hain zuzen,

hauetariko bat dugu finkaturik: «Bizkar Hezurra» izeneko taldea, «informazio pozoindua» bere lehen LP-a delarik. jaio berri taldea, bai; baina karrera luzeko musikagileak ere.

Hau ez dugu zerotik hazten den laukotea. Egungo Euskal Rocka ezagutzen duena laster konturatuko da taldearen opartaideak, duela urte batzuk, bere historia musikala idazten hasi zirela. Goar Iñurrieta, kitarrajolea eta abestien sortzailea, parte hastu du Korroskada, Cicatriz, Hertzainak, Rock Dam edo Anticuerpos-en zorbait lanetan. Tresna eskuan duela trebetasuna behin eta berriro erakutsi digun mutila. Triku, Korroskada taldetik etorrira, ezaguna dugu. Kasti-k, baterian eta Mikelek, desagertutako «M-ak» taldean baxu lana bete egiten zuena, osatzen dituzte bizkar berezi honen lau hezurak. Bestaldetik Ion Maia dute,



trikurekin batera, hitzak moldatzen kolaboratzaile.

«Informazio pozoindua» ez da bizkor eta aurreneko entzunaldi batean asimila daitekeen lana. Abesti sendo eta borobilak ditugu.

Apostua irekita dago. Musika da erantzuna.

Joxemari/Txabi Arnal Gil

hAurRAk

Txisteka-misteka

BI LAGUN topatzen dira kalean eta batak esaten dio besteari:

- Jo, goizean medikuarengana joan naiz eta esan dit lan egiten ari naizenean ez erretzeko.
- Eta zer, kasorik egin al diozu?
- Bai, lana utzi dut.

- NIK** zure aurpegi hori beste leku batetan ikusi dut...
- Ba arraroa da, nik burua beti lepegainean eramaten dut.

—**ZERGATIK...?**

- ...kantatzen dute oilarrek begiak itxita?
- Kantua buruz dakitelako.
- ...egiten dute lo oiloek hanka bat jasota?
- Bigarrena jasoko balute, erori egingo lirakeelako.

MADRILGO Moncloako jauregiaren aurrean utzi nahi du kotxea gure emakumeak. Berehala Goardia bat etortzen da, eta esaten dio:

- Barkatu baina ezinduzu hemen kotxea utzi, ministroak oraintxe bertan irtengo dira eta.
- Berdin da, lasai gizona, herenegun jarri nuen antirroboa.

EMAKUME BAT klinira doa gaiso dagoen senarra bisitatzerako. Gelara hurbildu denean medikuak aurpegi ilun batez esaten dio:

- Berri txar bat daukat zuretzat. Senarra hil zaizu orain dela ordu erdi.
- Baina barrutik entzuten da:
- E, e! Oraindik bizirik nagoela! Oraindik bizirik nagoela!
- Zaude isilik, kalamidade hori! Zuk medikuak baino gehiago dakizula uste duzu ala?

PATXI ETA GERARDO diruz larri eta lapurretan ari dira. Halako batean bi hertzain agertzen dira eta noski, hor doaz gure lagunak korri eta korri, hertzainak atzean. Bapatean bidegurutz batera iristen dira. Bazter batean patata-zaku pila bat ikusen dute eta bestean bidoi batzuk. Patxi bidoi baten barruan sartzen da eta Gerardo patata-zaku batean.

Hertzainak bidegurutzera iristen dira baina ez dakite zer egin, galduta daude. Bazter guztiak miatzen hasten dira.

Halako batean hertzain batek esaten dio besteari:

- Txo, begira bidoi horietan!
- Ostikada bat ematen dio bidoi bati eta zera entzuten da:
- BIDOIINNNGGG!**
- Hemen ez dago ezer —esaten du orduan bigarren hertzainak.
- Eta patata-zakuetan? —lehenengo hertzainak berriro.
- Badoa hertzaina eta patata-zakuei ostikoka hasten da eta, eta orduan entzuten da:
- PATATOIINNNGGG!**



GASTEIZ euskaltegia
Errege katolikoak, 15-C.
Tfnoa: 28 89 22

PINTO euskaltegia
Pintoreria 74.
Tfnoa: 28 97 80

ZALDIARAN euskaltegia
Zaldiaran Plaza, 16.
Tfnoa: 24 49 05



Marea biziak Zozomikotetan

...G

eldi!, eseri!! —ari zen Lurdes andereñoa eztarria urratu beharrean, baina jabetzen zen ia itsasoa baretzea bezain zaila zela iskanbila zalapartatsu hura baretzea.

—Andereño, andereño...! —Iñaki sartu zen atetik begiak bere lekutatik irtetzeko zorian—, gure txalupa itsasoak eraman du moilatik, moila gainetik. Aita eta biok horiz pintatu genuen joan den astean... —malkoen distira nabari zitzaion begietan.

—Ba gure aitona esan du kua-
rentaitresetik ez duela horrelakorik

ezagutu —esan zuen Itziarrek—; atzo gure atarirarte heldu ziren urak eta gaurko marea oraindik gogorragoa izango omen da. Karta denborak edo ez dakit direla esan du.

—Karta denborak ez, karta tenporak —zuzendu zion andereñoak puxkat bere onera etortzen hasia zegoen gelara begira—, baina ez da larritu behar horregatik. Garai honetan urtero izaten dira marea biziak. □



Marea biziak zozomikotetan


Kaiozelai ikastolako haurrak klasean daudela hasten Juan Martin Elexpuren ipuin hau. Ikasgelan kontu gehiago egiten diote urari andereñoari baino. Azkenean ikasgela inundatzen hasten denean neska-mutilek, andereñoarekin batera, alde egin beharko dute Iñakiren txalupan.

Abenturazko ipuina izanik, gure ohi-
turen zenbait ikutu ditu eta amaiera fantastikoa.

Momentu batean irakurtzen da ipuin hau eta bere laburtasunean mundu eta ikuspegi asko ezagutzeko aukera ematen digu.

Juan Martin Elexpuru UNEDeko irakaslea izateaz gain, zenbait liburu-
ruren egile ere bada Fernando plaentziarra esaterako, edo helduentzat idatzitako Txakur zaunkak atean besteak beste. □

J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

Chimbo Jatetxea

Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91
GASTEIZ

Aurtengo Baskonia onenekin burrukatu nahian



Taugres Baskoniak denboraldi berri bati ekin dio. Aurrendenboraldi itxaropentsuaren ostean, zalego gasteiztarra baikor azaltzen zen desafio berriaren aurrean. Hala ere, talde handien aurkako lehen norgehiagoketan animuak hoztu dira. Araba Pabiloiko katedrak taldearen mugak ikusi ahal izan ditu. Bosteko ona, baina esperientzia gutxiko aulki bat. Sailkapenaren erdikaldean ibili nahi duen edozein talderentzat ekipo ona da hau, zalantzarik gabe, baina onenei irabazi nahi izanez gero, zeozer falta da. Entrenatzailea, zalegoa eta taldeak berak ordezeko berrien premia argi eta garbi dute. Santi Abad Gasteizen da dagoeneko, eta hilabetea bukatu baino lehen hirugarren atzerritarra gure artean egongo dela dirudi

den-dan
haltzariak

Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ

Pablo Laso



- ✓ Adina: Hilaren 13an 26 urte betetzen ditu.
- ✓ Jaioterria: Gasteiz
- ✓ Taldeak: Bere aurreneko saskiak San Viator ikastetxean sartu zituen. 16 urte zituela Iparramerikako Unibertsitate batetan eman zuen urtebete bat. Amerikatik etortzean, Baskoniak fitxatu zuen. Orduetik hona taldeko antolatzailea da.
- ✓ Bere ustez munduko jokalaririk onena: Michael Jordan
- ✓ ACB-ko bere bosteko ideiala: Azofra, Villacampa, Jackson, Arlauckas eta Sabonis.
- ✓ Baskoniak izan duen jokalaririk onena: Arlauckas.
- ✓ Eta gasteiztarraren artean: Alberto Ortega, Iñaki Garaialde, Josean Kerejeta...
- ✓ Aisi tartetan: Bere lagunekin egotea gustokoa du. Bere esanetan zoritxarrez gutxitan egin dezake hau denboraldian.
- ✓ Bere ametsa: Baskoniarekin txapelketa bat irabaztea.

Pablo Laso:

“Egun saskibaloia krisialdian murgilduta dago”

Pablo Laso Baskonian jokatzen hasi zenetik, saskibaloia asko aldatu da. Urte hauetan kirol honek makina bat aldaketa jasan ditu. Egun, lehen ez bezala, kolore beltza da nagusia polikiroldegi handietan. Pablo Laso ere ez da 17 urtetako gaztea, baina bere jokua ezaugarri nagusiek berdinak izaten jarraitzen dute. Jokalari azkar eta ikusgarria da. NBA-ko antolatzaileek duten tankera bera erabiltzen du, berak bere kideei bidaltzen dizkien baloiak ia saski ziurrak dira. Etorkizunean ACB-ko marka bat baino gehiago hautsiko du, aurtengoa lehen mailan betetzen duen zortzigarren denboraldia baita.

GEU GASTEIZ: Denboraldiaren hasiera ez da ona izan. Zelan ikusten duzu taldearen etorkizuna?.

PABLO LASO: Bai, egia da. Taldea oso gaztea da, kalitate handikoa, baina fitxaketa pare bat falta zaigu. Uste dut denboraldia aurrera joan heinean taldea gora joango dela.

G.G.: Manel Comas entrenatzaile gogorra da?.

P.L.: Bai zorrotza da. Nik izan dudun entrenatzaile onenatariko bat da. Ideiak oso argi dauzka. Dena den lan egiten utzi behar dute, bere eskuetan dagoen taldea oso gaztea delako.

G.G.: Gasteizko zalegoak asko eskatzen du?.

P.L.: Bai, baina normala da. Zalegoak hor goian ikusi gaitu. Orain saskibaloia, gizarte bezalaxe, krisialdian murgilduta dago. Honen aurrean, Taugresek ezin izan dio beste urtetako egiturari eutsi.

G.G.: Zeure ustez, zeintzuk dira taldearen helburuak?.

P.L.: Ez dugu ametsik egin behar. Hala ere, ea Europako Koparen ligatxoan sartzen garen. Taldearentzat Europako final batetan edota finalerdietan egotea oso garrantzitsua izango litzateke. Ligan txapelketa irabazteko play-offetan sartzea da helburua.

“**Iaz Laso-Arlauckas bikotearen menpean geunden.**”

G.G.: Zertan oinarritzen da zuen jokua aurtengoa?.

P.L.: Iaz agian Laso-Arlauckas bikotearen menpean geunden. Honetan aldiz, taldeak oreka handiagoa du, Perasovic, Rivas, aurtengo Marcelo Nicola hobea da... Hala eta guztiz ere, gure ahalmena saskiak sartzeko gutxitu egin da.

ditare

**MIHISEDENDA
UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK**

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

G.G.: Euskal harrobiak ez du gehiagorako ematen?. Baskonian euskaldun gehiago egotea ezinezkoa da?.

P.L.: Arazorik larriena altuera eza da. Nire ustez euskal harrobia ondo lantzen da, baina egun hirugarren kanpotarraren etorrerarekin bi postu libre besterik ez dago ACB-ko talde batetan. Honek harro-biko lana oztopatzen du.

G.G.: Selektzioa gainditu ez duzun ikasgaia da?.

P.L.: Ez, egon naiz dagoeneko eta uste dut oraindik joateko aukerak dauzkadala. Nire ametsik handiena Joku Olinpikoetan parte hartzea izango litzateke. Joateko zorian izan nintzen, hala ere ez nintzen azkenenengo unean sartu. Gaur egun ez naiz selektzioaz kezkatzen, baldin banoa, saritzat hartzen dut, eta ez banoa, ez da ezer gertatzen. Denboraldia oso luzea da, eta atsedena ere hartu beharra dago.

G.G.: Baskoniak harrobiko jokalaririk batzu alde egiten utzi ditu. Garcia, David Sala, Angulo... Zer deritzozu honi?.

P.L.: Bai. Herb Brown-ek ez zuen jende gaztearengan sinesten. Honela, jokalaririk galtzen dira. Batzutan ez genien merezi zuten aukera eskaini, eta entrenatzaile baten erruz alde egiten utzi ditugu. Guzti hau beste taldetan erakutsi dute. Baina hori iragana da, eta orain ez da errepi-katukot, taldearen filosofia aldatu baita.

G.G.: Pablo Laso eta Herb Brown-en arteko tirabirak gogorrak izan ziren, ezta?.

P.L.: Herb Brown-ek jokalaririk gehiegi presionatzen zituen. Oso pertsona berezia zen. Orain ez naiz kritikatzeko hasiko, ez delako momentua. Bere alde onak eta txarrak zituen, baina berak pentsatzen zuen gauzak gaizki joatean, ni nintzela arduraduna.

Kantxatik kanpo zuen jarrerak aldiz, kalte egiten zion taldeari. Jokalarien gainean zegoen beti. Ez zintuen lasaitzen utzi. Gehiegi sakatzen zuen. Hala eta guztiz ere, lan handia egin zuen.□



BASKONIA

Historia eginez...

BASKONIA 1959. urtean sortu zen. Talde gasteiztarrak hamar denboraldi jolastu zituen maila probintzian. 1969an 3. Mailara igo zen, maila honetan urtebete pasa ondoren, 2. Mailara egin zuen salto. 1972. urtean Ohorezko Mailan aritu zen lehen aldiz. Aurten hogeitabat urte betetzen ditu Ohorezko Mailan (azkenengo urteetan "ACB" izeneko Ligan). Behin bakarrik galdu du kategoria, 1981ean izan zen. Hala ere, berehala buelta egin zuen lehen mailara, 82an hain zuten.

Bere sailkapenik onena birritan lortu-tako laugarren postua da. 85ean taldeak duen txapelketa ofizial bakarra lortu

zuen: ACB-ren Kopa Txapelketa. Azken denboraldietan lehiaketa europarretan parte hartzeari esker, Baskonia taldea Europan ezagutzen hasia da.

Baskoniak babesle ezberdinak izan ditu bere historian zehar, horra hor Kas, Arabatxo Baskonia, Taugres... Levante-aldeko enpresa honek 1987. urtetik babesten du talde arabarraren aurrekontuaren zati handi bat. Taldeak kantxa ezberdinak erezagutu ditu. Frontoi Gasteiztarra, Mendizorroztako Polikiroldegia eta Araba Pabilioiak taldearen historiaren lekukoak izan dira. Historiak ez du txapelketarik ematen, baina Baskonia ibilitako bidea hor dago.□



GIZARTE ETXEAK

Euskarazko lantegiak
Urria • Abendua

Laster hasiko dira martxan aurtengo euskarazko tailerrak Gizarte etxeetan.

Aurten, besteak beste, honako eskeintzak ditugu:

Jostailugintza eta solfeoa haurrentzat, malabarismo-jolasak, ornitologia, keramikagintza, euskal dantzak eta antzerkia gaztetxoentzat eta txalaparta, masaia, lorategi-diseinua eta sukaldaritza nagusientzat.

Tailerrek Urritik Abendura iraungo dute, beraz informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazue hurbilen duzuen gizarte etxera

MUSIKA

- 10, igandea** • **Jazz Fusión Laukotea.** Aranbizkarrako parkean, 18,30etan
- 12, asteartea** • **Gammak** (Ekialdeko musika) El Pilar auzoan, 18,30etan
- 18, astelehena** • **Alfaro SA-k antolatutako kontzertua.** Principal Antzokian, arratsaldeko 8,30etan

BIDEO

Urriak 20, 21, 22
Villasuso Jauregian

Euskal herriko erakunde eta enpresentzako **VI. bideo** lehiaketa.



JATETXEA
ERRETEGIA

OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

URTEGI-ALDE
SAGARDOTEGIA

Urrunaga(Araba) Tfnoa: 45 50 67

IDAZTEKO PREST?

Idaztea gustatzen bazaizu, orain duzu aukera aparta. Hona hemen gure buzoian aurkitutako zenbait lehiaketa:



IOKIN ZAITEGI VII. Itzulpen laburren sariketa.

Gaia: «Jugoslavia ohiko aldaketak»
Arrasateko AEDk antolatua. 250.000

pezetako saria irabazlearentzat, finalera heltzen diren guztiak 50.000 pezeta irabaziko dutelarik.

Lanak bidaltzeko epea: 1993ko azaroaren 5a baino lehen.

Informazio gehiago:

AED Elkarte (Tfnoa. 795446)
«Iokin Zaitegi» Sariketa
Pablo Uranga kalea, 4
ARRASATE

amodiozko gutunen I. BERRIGARA LEHIAKETA

1978an baino lehenago jaiotakoak har dezakete parte.

Lanak San Valentín egunerako presentatu beharko dira. Bi sari nagusi: 75.000 eta 40.000 pezetakoak.

Informazio gehiago eta lanak bidaltzeko:

Amodiozko gutunen I. Berrigara lehiaketa
Berrigara Astekaria.
Errotalde Jauregia
20.570 BERGARA



ZINEMA ikastaldi irekia

Arratsaldeko
8etan
«Luis de Ajuria»
aretoan

«Zhang Yimou» zikloa

Urriak 14 •
Urriak 21 •
Urriak 28 •

«Bas-arto gorria»
«Kriseilu gorria»
«Wiu Ju emakume
txinatar bat»

ERAKUSKETAK



Olagibel Aretoan (Enparantza Berria)
Urriaren 7tik 26ra CONCHI URRA: Lan grafikoa.
Urriaren 28tik Irailaren 5ra BLANCA CASTILLO.
Argazkiak

Luis de Ajuria Aretoan (General Alava 7).
Urriaren 2tik 15ra. ELENA ZIORDIA. Naif pintura
Urriaren 17tik 31ra. SANTOS IÑURRIETA. Pintura

San Prudentzio Aretoan (San Prudentzio 30).
12ra arte: IKONOSTASIOA. Eduma
15etik aurrera: EUSKAL PINTURA AURREZKI KUTXEN
BILDUMETAN

Pajarita Aretoan. (Kutxilleria kalea, 22)
Urriaren 2tik 15ra LUIS RODRIGUEZ ALEJO. Pintura
hiperrealista eta bodegoia.
Urriaren 17tik 31ra GUTIERREZ SOSA. Pintura

Aitor Urdangarin Galerian (Florida 24).
Urriaren 1etik 15ra. BLANCA ZABALA

Cordon Etxean: (Kutxileria, 24).
Urriaren 18tik aurrera: NATUR ZIENTZIETAKO X.
TAILERRA. Fossilak. Dinosaurioak.

Araba Aretoan: (Dendaraba).
18tik aurrera: ELENA SANTANO eta SAGRI MAULEON.
Eskultura eta grabatua

Ur-biltegi zaharra: (Landatxoko gaina).
Urriaren 8tik 24ra. JAVIER SANTXOTENA. Eskultura

 **zalu**
FOTOKOPIAK
Berehalaxe!!
Prado 20

Tfnoa: 945-288248 • Faxa: 945-253291

AZOKA

deportivos

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

ERREITEN



BERGANTZU

Magia eta ilusionismoa. Urriak 16, 20etan Gizarte Etxean.

DULANTZI

Samaniego antzerki-taldea: «Las aventuras de Tom Sawyer» Urriak 30, 19,30etan

GASTEIZ

Meccano XIV erakusketa. Urriak 3-31 Artelan eta Lanbide Eskolan

IZARRA

Kuskus Antzerki-taldea: «incidentes» Urriak 14, 15,30etan Eskolan

KANPETZU

Traspasos Dantza-Tailerra: «Sisifo» Urriak 10, 20,30etan Frontoian

KOMUNIOI

Bideo-Foruma: «Cartas a Iris». Urriak 20, 17etan Udaletxeko aretoan

LANGRAITZ

Pan y Chocolate antzerki taldea: «Zahino». Urriak 28, 15etan «Jose Miguel de Barandiaran» eskolan

LAUDIO

Lairili Antzerki-taldea: «Solos en compañía» Urriak 22, 19,30etan Kultur Etxean

MAEZTU

Magia eta ilusionismoa. Urriak 16, 18etan Gizarte Etxean

URIBARRI GAUBEA (Villanueva de Valdegovia)

Etnografiari buruzko hitzaldia. Urriak 26an, 17etan Udaletxeko aretoan.

ZALDUONDO

Lairili Antzerki-taldea: «Solos en compañía» Urriak 30, 19,30etan Larrazaga Jauregian.

ARABAKO FORU ALDUNDIA KULTURA SAILA

«HAUR LITERATURAZ» IHARDUNALDIAK

«GALTZAGORRI» • OEPLI-ren euskal Saila
UEU • Literatura Saila
EHU • HLDS

ERAKUSKETAK:

Kultur Etxean

Haur liburua istorian zehar erakusketa

Gaur eguneko haur liburua erakusketa-salmenta

HITZALDIAK:

Kultur Etxean, arratsaldeko 7,30etan

Urriak 18, astelehena:

Juan Kruz Igerabide
Haurrentzako poesia

Urriak 19, asteartea:

M. Jose Olaziregi
Ertainetako ikasleen gustu eta disgustuak

Urriak 20, asteazkena:

Xabier Mendiguren
Haur literaturaren argitalpengintza. Arazoak

Urriak 21, osteguna:

Patxi Zubizarreta
Tradizioa eta modernitatea haur literaturan

Urriak 22, ostirala:

Mahaingurua
«Zarautzik datorren idazle bat nai ni»
A. Lertxundi, Txiliku, J.A.
Ormazabal.
Moderatzailea:
Xabier Etxaniz


ESPERANTO

Oinarrizko ikastaroa
Urritik Abendura



Arabako Esperanto Elkartean

Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)



Barrancal, 20 • Barrenkale, 20
Telf. 14 68 43 - GASTEIZ

ALISAS TABERNA

EZ DAGO
PINTXORIK
KUTXI • GASTEIZ



Hitzaldiak

(euskaraz)


Luis de Ajuria aretoan

18an -20.00etan: «Hilezkortasuna»

Urtziren eskutik

26an -19.30etan: «Aldizkari pornografikoak euskaraz» Bixen Gil de Paules-en eskutik

29an -19.00etan: «Alaskatik Tropikorainoko Espedizioa» Dina Bilbao eta Josu Iztueta-ren eskutik

 **Bagare** -k antolatuak
EUSKAL TOKIA



ELIZAN *ere* EUSKARAZ

PILAR ELIZAN

Emilio ☎ 27 18 33

OHOkO

1-3 astelehen, astearte eta mailak asteazkenetan 6,30etan
4-5 astelehen, astearte eta mailak asteazkenetan 7,45etan
6-8 egunak eta orduak mailak taldeen arabera

S E N

SAN JOSE ARANA

Antonio ☎ 25 26 61

Lehenengo Jaunartzeko
Katekesia

SAN MIGEL ELIZAN

Txema ☎ 23 24 70

OHOkO

1-5 ostegunetan 6etan
mailak

SENDOTZA eta **GAZTERIA**
taldeen arabera

JESUKRISTO BERPIZTUA

☎ 24 61 76

OHOkO

1 maila astelehenetan 6etan
2 maila asteartean 6etan
3 maila asteazkenetan 6etan
4 maila ostegunetan 6etan

Gazteak ostiraletan 7,30etan

GASTEIZKO FEDEDUN EUSKALDUNEN TOPAKETA ESTIBALITZEN

Urriaren 16 • larunbata
arratsaldeko 6etan

Nork bere bidaia bere erara Estibalitzen elkartzeko

Meza Santua

Elkarren arteko elkarriketa (jateko eta edateko ere egongo da)



**zure euskal
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

IBUSGAR'I
t i n t a t e g i a

Alfonbrak, mantak eta edredoiak, narrazko arropak, berokiak eta lumazko arropetan espezializatuak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIZMENDI, 20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ

Auzoz-auzo, hemen:

- Ariznabarra: Ocio gaztelua, 21
Astulez gaztelua, 3
- Sansomendi: Valentin Foronda, 3
- Zaramaga: Zuta, 14
- Nafarrako Erregeak, 56
- Abendaño: Abendaño, 1-37
- Adurza: Nieves Cano, 6 • Pio XII, 5
- Adriano VII, 1
- Pedro Orbea, 2



Lehena...

MAKAILU ENTSALADA:

Osagaiak:

- Makailu desmigatua.
- Eskarola.
- Piper gorria.
- Txapiro saltsa.
- Ganbak.
- Letxuga.
- Maionesa.

Nola egin:

Aurreko eguneko txapiroien saltsa apur bat ipini plateraren oinarrian. Era juliarrera ebakitako barrazkiak (letxuga, eskarola ...) ezarri saltsa horren gainean.

Makailu apurrak desmigatu gainetik eta horri gehitu ganben buztan zuritu eta egosiak.

Guzti horri maionesa arin bat erantsi eta piper gorri zati batzuez apaindu.

...bigarrena...

HEGALUZEA TOMATEAREKIN

Osagaiak:

- Hegaluzea xerretan.
- Berakatza.
- Gatza.
- Tipula.
- Piper berdea.
- Salda.
- Tomatea.
- Olio.

Nola egin:

Barazki guztiak (tipula, tomatea eta piper berdea) zatikatu dadoen gisara. Berakatza xerraztatu. Nahasketa su bigunez berotu.

Inizeztatutako hegaluzea aparte salteatu ahal da, nahi izanez gero, hori gusto kontua baita.

Hegaluzeari sofritoa eta salda apur bat bota gainetik. Saltsa bat sortu.

...eta azkenburukoa.

ESNEGAINAZ ETA EZTIZ EGINDAKO SAGARRAK

Osagaiak:

- Sagarrak.
- Eztia.
- Esnegaina.

Nola egin:

Sagarrei bihotza kendu eta bandeja batean jarri.

Esnegaina eta eztia nahastu eta sagarrei egindako zuloetan sartu. Sobratzen dena ur pixka batekin nahastu, bandejara botako dugun saltsa egiteko.

Labea berotu arte itxaron, ondoren sartu eta 170 bat gradutan eduki, ondo egin arte.

Cesar Lahidalga



Bacalao Giraldo

•Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
•36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema. 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa. 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz



HAIA!



JA-JA
TXAN
TXAN
GAB-
GUB?



ZER
DA HAU?



TRANQUÍS... ES UN COLGAO DE AQUÍ, MENOS MAL QUE VOY AL EUSKALTEGI, ASÍ PODRE HABLAR CON EL...




LASAI, GISON, ES SARA KON-TURATU FESTETAN GAUDELA... HAU EK SU BESELA, TRIBU BATE-KOAK DIRA. BAKEA EGITEKO, TORI TRAGOTXO BAT.



ETA ZE TRIBUKOAK DIRA?





Euskara gure kulturaren oinarria da.
Horrexegatik egunez egun aurrera
goaz euskara arabar guztion
hizkuntza izan dadin.



Ibili-ibilian, hara non !

**Non bada,
hilabetero
zure etxean.**

Baina, zer?

CEU GASTEIZ
aldizkaria

**Bai, baietz bada eta
gainera...**

**debalde,
dohainik**

**Bai! Baina zer egin
behar da?**

**Ba, oso erraza
bidali helbidea eta
izena 1691**

Postakutxara...

**...eta beste 5.000
etxetan bezala zuk
ere jasoko duzu.**

